



## LABen eskaera EAEko LEGE BILTZARRARI

**Erabakitzeko eskubidearen kontra eta euskal langileon kaltetan Estatutik datozen eraso eta injerentziei aurre egin eta Lan Harremanak eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua martxan jartzeko erabakiak har ditzan**

### > Sar Hitza

80. hamarkadatik aurrera Espainiar Estatutik **lan erreforma desberdinak inposatu izan zaizkigu euskal langileoi**, patronalaren neurria diseinatutako erreformak, bitarteko berriak emanez lan baldintzak kaskartu ahal izateko. Orduetik hona **langile eta patronalaren arteko harremana desorekatzen joan da, langileoi prekarietatea inposatuz eta patronala hauspotuz.**

PSOEren eskutik 2010. urtean etorri zen erreformak negoziazio kolektiboa neutralizatzea izan zuen helburu eta honen zentralizazio-estatalizazioari lehen oinarriak jarri zizkion.

PPren eskutik 2012an sustatutako lan erreformak, berriz, langile eta enpresarien arteko erabateko desoreka ekarri zuen eta patronalaren aldebakartasuna ezarri, eta hala, 2010ko erreformak ezarritako oinarrian sakondu zen, negoziazio kolektiboaren neutralizazioan eta honen zentralizazio-estatalizazioan, alegia.

Aipatu erreformek lan baldintzen prekarizazioa bilatzen zuten, eta horretarako hainbat neurri inposatzea zekarten:

- 1.- **Ultraktibitatearen galera:** erreformak indarrean jarri zirenetik aurrera ez dago bermatua, hitzarmen berri bat sinatu arte, aurrekoa aplikatzen jarraitzeko beharra.
- 2.- **Enpresako hitzarmenei lehentasuna ematea**, nahiz kasuan kasu sektoreko hitzarmenean ezarritako lan baldintzak kaskartu.
- 3.- **Estatalizazioa:** herrialde hitzarmena edo sektoreko hitzarmen autonomikoa izanda ere, estatu mailako hitzarmena aplikatzeko aukera, herrialde edo autonomi elkarteetan hitzarmenak negoziatzea debekatuz edo negoziatu daitezkeen gaiak mugatuz eta murriztuz.
- 4.- Hitzarmen **batean adostutakoa aldebakartasunez ez aplikatzeko aukerari** bide ematea.
- 5.- **Bidegabeko kaleratzeetan kalteordaina 33 egunetara jaitea eta tramitazio soldatak desagertzea.**
- 6.- **EEE/Aldi Baterako EEEdak erraztea:** egoera berriak irekitzearekin eta lan agintaritzaren informe prezeptiborik ez izatearekin.
- 7.- **Absentismoa kaleraketa objektiborako arrazoi** moduan ezartzea.

8.- **"Ekintzaile" kontratuan aldaketak**, lan baldintza kaskartuz.

9- **Formakuntza kontratuan Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren arabera soldata ezartzea**, formakuntza denbora %15era murriztea eta 30 urte arteko pertsoneri egin ahal izatea.

10.-**ABLEak kolokazio agentzia** moduan aritu ahal izatea.

11.- **Klasifikazio profesionala** kategorien arabera egitetik **talde profesionalen arabera egitera pasatzea**, mugikortasun funtzionalari aukera zabalak irekiz.

12.- **Malgutasun handiagoa**: malgutasun kopuru bat hitzarmenetan adostera derrigortzea, eta honen ezean, legez %5eko inposatzea.

13.- **"Lan baldintzen funtsezko aldaketak" erraztea**, kasu horietarako gaiak zabaltzea.

Legebiltzar honetan ordezkariak duzuen alderdi gehienek babestu zenuten aurreko Estatuko presidente Mariano Raxoiren kontrako zentsura mozioa; eta hainbat neurri berriren promesarekin heldu zen Pedro Sanchez gobernura, lan erreforma bertan behera uzteko asmoa ere iragarri zuen.

Joan den abenduaren 13an estatu mailako CCOO iragarri zuen erreformaren puntu batzuk aldatzeko aurreakordioa zegoela estatuko Gobernuarekin. Azken honek ez zuen halakorik baieztatu, baina elkarrizketetan zebiltzala aitortu zuen. Gaiaren inguruan aritzeko batzorde bat osatzeko asmoa iragarri du Madrilgo Gobernuak. Gaur gaurkoz, ez dago lan erreforma bertan behera uzteko iragarpenik, ezta gutxiagorik ere.

**CCOOk iragarritakoari erreparatuta, erreformatik oso puntu gutxi aldatzeko borondatea dute alde biek, Gobernuak zein sindikatuek, eta gainera, erreforma aurretik zegoen egoera ere ez da aintzat hartzen.** Moldatu asmo dituzten gai apurrak hiru dira: ultraktibitatea, enpresetako aplikazio lehenetsia eta hitzarmenetan adostutakoa ez betetzeari dagozkionak.

Bestetik abenduaren 28ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gobernuak erreformatik, Ekintzaile kontratua eta Formakuntza kontratuak soilik aldatu ditu.

## > LABen irakurketa

PPren lan erreformak ezarri zituen 13 neurrietatik 3 besterik ez aldatzeko asmoa azaldu du CCOO, eta Gobernuak gai hauen aurrean ez du ezta iritzirik eman. Beste gai bi soilik moldatu ditu Dekretu bidez.

Hori gutxi balitz, aldatzekoak liratekeen 3 gai apurren artean ez dago estatalizazioarekin amaitzeko neurririk, ezta erreformak kaleratzeak errazteko irekitako bideari langarik ere. Beraz, hauxe da gure ondorioa: **bai Gobernuak bai estatu mailako sindikatuek, alde batetik langileen lan baldintzen zentralizazioarekin jarraitzeko borondatea dute, eta bestetik, langileak kaleratzeko erraztasunak mantendu nahi dituzte.**

**Estatalizazioaren bidez hemengo langileoi, sindikatuoi eta patronalari gure lan baldintzak hemen bertan negoziatueta erabakitzeke eskubidea urratzen jarraitu nahi dute.** Erabaki honen zergatia argia da, gure lan

baldintzak gehiago prekarizatu nahi dituzte askoz baxuagoak, askoz kaskarragoak diren estatu mailako lan baldintzen aplikazioaren bidez.

Euskal Herrian egon den eta dagoen errealitateagatik eta indar korrelazioagatik, estatukoak baino lan baldintza hobek izatea lortu du langile klaseak. **Estatu mailako lan baldintzak gurean aplikatzea ezin dugu onartu, gure herriari bizitzaren prekarizazioa eta pobrezia bakarrik ekartzen diotelako.**

Bide horretan, arlo publikoan ari diren eta estatu mailako lan baldintzak aplikatzen dituzten enpresek ezin dute erakundeetatik jasotako diruarekin negozioa egin. Ezinezkoa da bertako baldintzen arabera dirua jasotzea, baina estatu mailako lan baldintzak aplikatzea. Ez da onargarria.

Horrez gain, patronalek eta erakundeek behin eta berriz diote egoera ekonomikoak hobera egin duela Euskal Herrian. Guri arrazoi horrek inoiz balio izan ez badigu ere, euren argudioetara mugatuta, hori horrela izanda, zergatik mantendu kaleratzeak egiteko erraztasunak?

LABen iritziz, **Estatuan Gobernuak eta sindikatuak adostu dezaketena (edozer adostera heltzen badira), guztiz ez nahikoa izango da Euskal Herriko langileak pairatzen ari garen prekarizazio prozesuari aurre egiteko.**

Argi dago, beraz, egoeraren irtenbidea ez dela Madrildik etorriko. Beharrezkoa da gurean neurriak hartzea erreformek inposaturiko neurriak bertan behera uzteko.

**Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua (LHBSEE) martxan jartzeko eta garatzeko garaia da,** bertako eragileek hemen bertan behar ditugun erabakiak hartu eta geure tresna propioak martxan jartzeko, eskuduntza guztiekin eta kanpoko inolako injerentziarik gabe.

## > LABen eskaera

Idatzi honen bitartez, LAB sindikatuak hurrengo eskaerak egiten dizkio Legebiltzarrari:

- Estatuko Gobernuari, CCOO eta UGT sindikatuei, CEOE eta CEPYME patronalei eta Estatuko Kongresuari, 2010 eta 2012ko lan erreformak osoki bertan behera uzteko eskaera egitea.
- Eskuduntza osoak eta kanpo injerentziarik gabeko LHBSEEaren alde egitea, eta hau martxan jartzeko beharrezko erabakiak hartzea.
- Eusko Jaurlaritzari exijitzea hemen bertan negoziatutako lan baldintzak aplikatzen ez dituzten enpresak kontratazio publikotik kanpo uzteko.
- Negoziazio kolektiboaren estatalizazioaren kontra agertzea, bertako langileek EAEn beraien lan baldintzak negoziatzeko eta adosteko duten eskubidea defendatuz.

Bide horretan, Eusko Jaurlaritzari exijitzea

- hemen bertan negoziatutako lan baldintzak aplikatzen ez dituzten enpresak diru laguntza publikoetatik kanpo uzteko.
- hemen bertan negoziatutako lan baldintzak aplikatzen ez dituzten enpresak diru laguntza publikoetatik kanpo uzteko.

Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 3an